



BID-REX
Interreg Europe



European Union
European Regional
Development Fund

BID-REX

Euskadiko Gida egiteko oinarriak

Marta Ituribarria. Eusko Jaurlaritza



GBIO esparrua

Interesdun guztiek ahaleginak norabide jakin batean egitea, biodibertsitatearen ulermen integratua izateko

GBIO esparrua

- Biodibertsitateari buruzko ikuspegi informatiko orokorrak (GBIO, Global Biodiversity Informatics Outlook) esparru bat eskaintzen du interesdun guztiek ahaleginak norabide jakin batean egiteko, biodibertsitatearen ulermen integratua izateko.
- GBIOk lau eremu nagusi identifikatzen ditu, zein bere oinarrizko osagaiekin, ahaleginak eta funtsak koordinatu ahal izateko.
- Egileak diziplina askotakoak dira, eta 2012an hitzartutakoaren arabera, ondokoak dira biodibertsitate-datuak guztion onerako ustiatzeko estrategia globalaren funtsezko elementuak.

<https://www.biodiversityinformatics.org/>

Eremu gakoak

Esperientzia partekatuko **kultura** bat sortzea, datu komun eta sendoen estandarrak, datu-trukerako politikak nahiz pizgarriak, eta datuak gordetzeko sistema iraunkor bat.

Eskura dauden iturri guztietako biodibertsitate-**datuak** mugitzea, bizkor eta maiz erabili ahal izateko. Datuak behin bilduko dira, baina askotan erabili. Mota guztietako datuak izango dira: literatura historikoa, bildumak, zientzialari amateurren behaketak, sensore automatizatuen irakurketak edota mikrobio-komunitateen sinadura genetikoen analisia.

Datuak **ebidentzia** bihurtzeko tresnak ematea, datuok agerrarazi eta kontzeptuen arabera antolatuta, inguruabarra eta esanahia izan dezaten. Horretarako, elkarlaneko ahalegin handia egin behar da datuen zehaztasuna areagotu eta ikerketan eta politikan erabilgarri bihurtzeko; taxonomia-esparru bat emateko; eta espezieen atributuen eta interakzioen informazioa antolatuzeko.

Biodibertsitatearen eta hark jasaten dituen giza inpaktuen gaineko **ulermena** areagotzea, ebidentziak modeloetan eta bistaratze-tresnetan aplikatuta eta informazio-hutsuneak identifikatuta, etorkizuneko datu-bilketan lehentasunak ezartzeko.

Kultura

Datuen elkarlaneko kudeaketa irekia sustatzea

Lankidetzeta-ahalegina babestu eta sarituko duen ingurune bat sortzea, datuak partekatzeko eta biodibertsitatearen gaineko ulermena hobetzeko.



Sarbide ireki eta berrerabiltzearen kultura

Datuak partekatzea baimentzea automatikoki

Datuen truke irekia sustatzea, estandarrak ezarrita, funts publikoak eta pizgarriak eskainita, eta lehen mailako datuen baliabideak, datu-sortzaileak eta gainbegiraleak egoki esleituta eta aitortuta, banakoen eta erakundeen aitortpena barne.



Datuen estandarrak

Datuak eskura daudela, eta horiek askotariko sistemetan eta diziplinetan interpretatu eta berrerabili ahal izatea bermatzea

Datu-estandarren multzo malgu eta elkarreragingarri bat garatu eta mantentzea, mota guztietako biodibertsitate-datuak mugitzea errazteko.



Epe luzeko biltegitratzea eta arxivatzea

Datu-azpiegitura egonkorak sortzea, biodibertsitate-datu guztiak gorde eta mantentzeko

Biodibertsitateko datu mota guztien errepositorioen sare bat sortzea, metadatuetan, identifikatzaileetan, lizentzietan, tresnetan eta web-zerbitzuetan oinarritutako ikuspegiekin.



Sustapen politikoa

Helburuen, arauen eta prozeduren esparru bat sortzea, biodibertsitate-datu guztien trukea eta berrerabilpena modu aktiboan sustatzeko

Politika publikoak, legedia eta finantzaketa-ekimenak konbinatzea eskala guztietan, estrategia hori indartzeko eta banakako osagaiak babesteko.



Ezagutza-sarea

Komunitate osoaren esperientzia baliatzea

Adituen jabetza eta onurak eskainiko dizkien ingurune bat sortzea, elkarlaneko kudeaketaren eta datu-kontserbazioaren partaide bihurtuta.

Datuak

Biodibertsitatearen gaineko ezagutza-iturri guztietarako sarbide digitala eskaintzea

Biodibertsitatearen gaineko ezagutza-iturri historiko eta garaikide guztiak, eta erakundeen neurketak eta behaketak, informazio digital egituratu eskuragarri bihurtzea



Landako
datuak jasotzea

Landa-ikerketako eta zientzia herritarreko datuen truke ireki eta egokia bermatzea

Biodibertsitateko behaketa guztiak mugitzea, baita horiei loturiko multimedia-edukiak ere, bildu eta aukera izan bezain laster.



Argitalpenak

Biodibertsitatearen gainean argitaratutako ezagutza osorako sarbide digitala baimentzea

Argitalpen inprimatuetan eta multimendia euskarrietan dauden biodibertsitate-datuak atera eta informazio ireki, estandarizatu eta egituratu gisa eskaintzea.



Bildumak eta aleak

Espesimenetan oinarritutako datuen digitalizazioa bizkortzea

Historia naturaleko espesimenen datuak lortu eta trukatzeko teknika eta prozesu efizienteak garatu eta zabaltzea.



Urruneko eta automatizatutako behaketak

Monitorizatzeko-teknoologia automatizatuak baliatzea, datu-bilketa zabaltzeko

Espezieen eta populazioen grabaketa eta identifikazioa automatizatzea, sateliteetan, landa-sentsoreetan, urrunetik kontrolatutako sistemetan eta bestelako teknologietan oinarritutako behaketa-sistemen bidez.



Sekuentziak eta genomak

Izaki bizidunen miaketa genomiko eta genetikoaren datuak gehitzea

Biodibertsitateari eta aldagarritasun genetikoari buruzko ikerketa molekularretako datuak biltzea, egiaztatutako sekuentzia erreferenteak, sekuentzietan oinarritutako identifikazioak eta giroko DNA eta RNA barne.

Ebidentzia

Edonongo biodibertsitate-informaziorako sarbide antolatua eskaintzea

Biodibertsitatearen gaineko informazio mota nagusiak indexatzeko eta antolatzeko azpiegiturak sortzea, hartara informazioa bizkor aurkitu eta berrerabili ahal izateko eta biodibertsitatearen gaineko ezagutzaren mapa integral baten garapenean laguntzeko.



Erabilgarritasuna
eta oharrak

Adituen taldeak biodibertsitate-datuak kudeatzeko eta kontrolatzeko baimena ematea

Tresnak eta prozesuak garatzea, zaleek, adituek eta sistema automatikoez datu-elementuak zuzendu eta zehazteko, betiere, erabiltzaileen betekizunen arabera, erabilpen-kalitatea eta -gaitasuna hobetuz, eta ohar horiek beti eskuragarri daudela bermatuta.



Behaketei
buruzko
integratutako
datuak

Espezieen behaketa erregistratuen ebidentzia guztiak antolatzea, denbora- eta leku-irizpideen arabera

Iturri adierazgarri guztietako datuak biltzea, lurralde osoko espezie guztien presentzia eta populazioak dokumentatzeko, ahalik eta eskala onenetan eta aldi guztietarako, eta baliabide horien estaldura, osotasuna eta kalitatea bermatzea.



Ezagutza ulerkorra
eskuratzea

Biodibertsitatearen gainean argitaratutako ezagutza osorako sarbidea integratzea

Biodibertsitatearen gainean argitaratutako ezagutza elkar lotzea eta eskura jartzea, erabiltzaileek aukera izan dezaten behar dituzten formen eta euskarrien arabera bilatzeko.



Espezien
ezaugarriei
buruzko
erantsitako
datuak

Atributuen gaineko informazio erabilgarri guztia biltzea, espezie guztietan, baita espezieen elkarreraginari buruzkoa ere

Espezieen atributuei eta espezieen arteko elkarreraginari buruzko datu eta informazio erabilgarri guztiak gehitzea, analisi eta eredu gintza digitalean erabili ahal izateko.



Taxonomia-
espanua

Espezieen katalogo egonkor eta osoa edukitzea

Espezie guztien katalogo bat osatu eta mantentzea, adituek gainbegiratuta, espezieon izena, sailkapena eta filogenia adierazita eta izen formalik ez duten taxonak barne hartuta.

Ulermena

Biodibertsitateko ereduen, joeren eta funtzioen ebidentzietan oinarritutako ereduak

Biodibertsitateari buruzko ezagutza-iturriak eta lurreko behaketa-sistemetako datuak konbinatzea informazio berria sortzeko, eta arduradun politikoei informazioa eskaintzea, eta gizarteari, oro har, hezkuntza.



Irudikatzea eta zabaltzea

Biodibertsitatearen gaineko ezagutzaren ulermen eta aplikazio ona ahalbidetzea

Herritarrei, zientzialariei eta arduradun politikoei tresnak ematea, biodibertsitatearen ulermena errazteko eta ulermen hori aplikagarri bihurtzeko.



Joerak eta iragarpenak

Biodibertsitate-ereduak ebaluatzea aldi eta leku jakin batzuetan, faktoreak eta inpaktuak aztertu eta etorkizuneko egoerak iragartzeko

Datu historikoak eta denboran zehar izandako aldaketen ebidentziak txertatzea joerak ebaluatzeko, eta, hala, iragarpen-eredua eratu ahal izatea eta lurzoru-erabilpenaren plangintzako, kontserbazioko eta jasangarritasuneko erabakiak hartu ahal izatea.



Sistema biologikoen modelaketak

Sistema biologikoak eraikitzea, hasi molekuletatik eta ekosistemetara bitartean

Eredu birtualak eraikitzea eskala guztietako sistema biologikoen gaineko ulermena hobetzeko eta ezagutza transmititzea beste eredu batzuetan txertatzeko.



Datu berrien bilketa lehenestea

Biodibertsitateko ikerketako inbertsioen etekinak maximizatzea

Informazio-baliabideak erabiltzea datu-bilketa berrien plangintza eta ordena zehazteko edo datu historikoak digitalizatzea informazio erabilgarriaren estaldura, osotasuna eta zehaztasuna maximizatzeko eta biodibertsitate-ereduetan gerta daitezkeen aldaketei egoki erantzuteko.



Eskala anitzeko modelatze espaziala

Biodibertsitate-ereduak eraikitzea, ebidentzia erabilgarri guztiak erabilia

Beste eremu batzuetako lurraren behaketa-sistemak dituzten eta taxon baten berariazko informazio biologikoa duten eskala guztietan bildutako datuak txertatzea, espezieen banaketa geografikoaren gaineko ikuspegi ahalik eta osoena sortzearen.



European Union
European Regional
Development Fund

Thank you!

Marta Iturribarria
hari-berdea@euskadi.eus
www.euskadi.eus/natura
[@miturribar](https://twitter.com/miturribar)

Questions welcome



www.interreg.eu/bid-rex